



453/2024 EBAZPENA, ekainaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen den argitaratzea lanbide-garapeneko ohiko deialdian (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren bidez argitaratutakoan) onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

Azaroaren 22ko 395/005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuen 11. artikulua ezartzen duenez, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari dagokio mailaketarako ebaluazio-prozesuaren deialdia egitea. Dekretu horien bidez, Osakidetzan lan egiten duten lizentziadun sanitarioen, diplomadun sanitarioen eta lanbide-heziketako pertsonal ez-sanitarioaren eta sanitarioaren lanbide-garapena arautzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren bidez arautzen dira Osakidetzaren mendeko zerbitzu-erakundeetako profesionalentzako 2022ko ekitaldiko lanbide-garapenaren maila esleitzeko ohiko deialdiaren baldintzak, eskabideak eta ebaluazio- eta esleipen-prozedurak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenak agindu zuen argitaratzea lanbide-garapeneko ohiko deialdian (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren bidez argitaratutakoan) onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, behin-behineko zerrenda argitaratzearen aurka ohiko deialdian bertan ezarritako epean egindako erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartuko da, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraziko dira.

Aurreko guztiagatik, eta emandako ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Onartzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren bidez argitaratutako deialdian parte hartu duten Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako profesionalen artean onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda, Ebazpen honen eranskinetan jasotako zerrendaren arabera:

I. eranskina: Ohiko deialdian onartutakoen behin betiko zerrenda.

II. eranskina: Ohiko deialditik kanpo utzitako eskabideen behin betiko zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita.



Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Osakidetza–Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua araberako.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 20a.

 **Osakidetza**
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
Sin.: LUISA LARRAURI EREÑOZAGA

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA